# 2021EKO EKAINAREN 24KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

# ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 24 DE JUNIO DE 2021

**Akta zenbakia: 11/2021**
**Bilera eguna**: 2021-06-24
**Bilera mota:** ohikoa
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordua:** 08:15- 08:45
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº: 11/2021**
**Fecha**: 24-06-2021
**Tipo de reunión**: ordinaria
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 08:15- 08:45
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:**
Jorge Segurado Iriondo

**Zinegotziak:**
Mikel Pagola Tolosa
Luke Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara de Miguel Berasategui

**Idazkaria:**
Xabier de la Mota Vázquez

**Reunidos:**

**Alcalde:**
Jorge Segurado Iriondo

**Concejales:**
Mikel Pagola Tolosa
Luke Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara de Miguel Berasategui

**Secretario:**
Xabier de la Mota Vázquez

Urnietan, 2021eko ekainaren 24ean, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 08:15tan, Jorge Segurado Iriondo alkatea lehendakari dutela, ohiko bilera egiteko.

En la villa de Urnieta a 24 de junio de 2021, siendo las 08:15 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Jorge Segurado Iriondo, al objeto de celebrar sesión ordinaria.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

## GAI ZERRENDA

**1.- 2021eko ekainaren 11ko bileraren akta onartzea.**

**2.- AIU 23 Erratzu-ko "L" lurzatirako xehetasun-azterlanari hasierako onespena ematea. ( 2021HORO0020)**

**3.- Obra handiko lizentzia Enbutegi Erdikoa baserrian egitura sendotzeko. (2021HOMA0003)**

**4.-Euskal Fondoko urteko Plan operatiboan proiektu baten aldaketarako proposamena. (2021GHIT0001)**

**5.- Adinekoen Pisu Babestuko plaza eskaerarako proposamena. (2021GORO0017)**

## ORDEN DEL DÍA

**1.- Aprobar el acta de la sesión de 11 de junio de 2021.**

**2.- Aprobación inicial del estudio de detalle en parcela "L" del AIU 23 Erratzu. (2021HORO0020)**

**3.- Licencia de obra mayor para la consolidación de estructura en el caserío Enbutegi Erdikoa. ( 2021HOMA0003)**

**4.- Propuesta de cambio de un proyecto en el plan operativo anual de Euskal Fondoa. (2021GHIT0001)**

**5.- Propuesta de solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal. (2021GORO0017)**

**6.- Sustapeneko diru laguntza ebazteko proposamena III eranskina: eliteko kirolariak. (2021SOKO0003)**

**6.- Propuesta para la resolución de la subvención de promoción (Anexo III): deportistas de élite. (2021SOKO0003)**

**7.- On Bizi elkarteko 2020ko dirulaguntzaren itzulketa. (2020SORO0069)**

**7.- Devolución subvención 2020 On Bizi. (2020SORO0069)**

**8.- Urnietako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko (HAPO) E.U.27 "Ermotegi" eremuko Birpartzelazio Proiektuaren Testu Bateratuaren akats zuzenketa. (2021HORO0017)**

**8.- Corrección de errores del Texto Refundido del Proyecto de Reparcelación de la U.E 27 "Ermotegi" del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Urnieta. (2021HORO0017)**

**9- Bestelakoak.**

**9- Otros.**

************************

**1.- 2021eko ekainaren 11ko bileraren akta onartzea.**

**1.- Aprobar el acta de la sesión de 11 de junio de 2021.**

2021eko ekainaren 11ko akta irakurri ondoren, ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak bertaratutakoen aho batez honako hau.

Tras la lectura del acta de la sesión del 11 de junio de 2021 y realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los asistentes adopta el siguiente

**ERABAKI DU**

**ACUERDO**

**Lehenengoa.-** 2021eko ekainaren 11ko akta onartzea.

**Primero.-** Aprobar el acta del 11 de junio de 2021.

**2.- AIU 23 Erratzu-ko "L" lurzatirako xehetasun-azterlanari hasierako onespena ematea. ( 2021HORO0020)**

**2.- Aprobación inicial del estudio de detalle en parcela "L" del AIU 23 Erratzu. (2021HORO0020)**

SABAI ARKITEKTOAK SLP k, eta zehazki José Luis Loinaz Arrieta, Agustín errea Oyarzabal eta Luciano Pagaegi Bilbao arkitektoek idatzitako xehetasun-azterketa ikusita,

Visto el Estudio de Detalle redactado por los el estudio de arquitectura SABAI ARKITEKTOAK SLP, concretamente por los arquitectos José Luis Loinaz Arrieta, Agustín Errea Oyarzabal y Luciano Pagaegi Bilbao,

Aurkeztutako Xehetasun Azterlanaren helburua L lurzatiaren lerrokadura berriak ezartzea da, lursailak dituen baldintza fisikoetara egokitzeko; izan ere, lursail horiek aldatu egin dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak eraikitako alboko bidegorriak lursailaren zati bat hartu duelako.

Visto que el objetivo del Estudio de Detalle aportado es el de establecer nuevas alineaciones de la parcela L, para adecuarlas a las condiciones físicas que presenta el terreno, las cuales han sido modificadas por la ocupación de parte del mismo por el bidegorri colindante construido por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 73. artikuluan adierazten duenez, xehetasun-azterlanen helburua da edozein lurzoru-motatan antolamendu xehatuaren zehaztapenak osatzea edo egokitzea, eta xehetasun-azterlanen

Visto que la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo indica en el artículo 73 que los Estudios de Detalle tienen por objeto completar o adaptar las determinaciones de la ordenación pormenorizada en cualquier clase de suelo, y que las

zehaztapenak, besteak beste, antolamendu xehatuak ezarritako lerrokadurak eta sestrak seinalatzera, zuzentzera edo osatzera mugatu behar dira.

determinaciones de los estudios de detalle deben circunscribirse a entre otras, al señalamiento, la rectificación o la complementación de las alineaciones y rasantes establecidas por la ordenación pormenorizada.

Ikusirik Lurraldeko Batzorde Informatzaileak 2021eko ekainaren 14an egindako irizpena.

Visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Territorio de 14 de junio de 2021.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta, aho batez, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau

En virtud de la tramitación legal establecida, por unanimidad, la Junta de Gobierno Local ha adoptado el siguiente

**ERABAKI DU:**

**ACUERDO:**

**Lehenengoa.-** SABAI Arkitektoak SLPk Erratzuko HEA 23ko "L" lurzatirako idatzitako xehetasun-azterlanari hasierako onespena ematea, baldintza hauekin:

- Dokumentua behin betiko onartu baino lehen, testu bategin bat aurkeztu beharko da, honako informazio hau jasoko duena:

**Primero.-** Aprobar inicialmente Estudio de Detalle redactado por SABAI ARKITEKTOAK SLP, para la parcela “L” del AIU 23 de Erratzu con las siguientes condiciones:

- Con carácter previo a la aprobación definitiva del documento, se deberá presentar un Texto Refundido en el que se incorpore la siguiente información:

| | **Plan Parcial 1992 ratificado por el PGOU** *HAPOk berretsitako 1992ko Plan Partziala* | **Estudio de Detalle** *Xehetasun-azterketa* |
|---|---|---|
| **Superficie terreno** *Lurraren azalera* | 680 m2 | 647 m2 |
| **Alineación parcela profundidad** *Sakonerako lurzatiaren lerrokadura* | 17 m | 15 m de media |
| **Alineación parcela anchura** *Lurzatiaren lerrokadura zabalera* | 40 m | 40 m |
| **Distancia a bidegorri DFG** *GFAko bidegorrirako distantzia* | 2 m | 2 m |
| **Alineaciónes edificación** *Eraikuntzaren lerrokadurak* | 13 x 30 m | 13-14 x 40 m |
| **Edificabilidad** *Eraikigarritasuna* | 1.080 m2(t) | 1.080 m2(t) |
| **Perfil edificación** *Eraikinaren profila* | PB + 2P | PB + 2P |
| **Ocupación máxima en planta baja** *Gehieneko okupazioa beheko solairuan* | 360 m2 | 360 m2 |

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea hogei egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean argitaratuko diren ediktuen bidez, azken argitalpenetik zenbatzen hasita. Era berean, iragarkia Udaleko iragarki-oholean eta www.urnieta.eus webgunean argitaratuko da.

**Segundo**.- Someter el expediente a trámite de información pública por plazo de veinte días, mediante edictos que se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los periódicos de mayor difusión del Territorio Histórico, y a contar a partir de la última publicación. Asimismo, el anuncio se publicará en el Tablón de Anuncios del

Ayuntamiento y en la web municipal www.urnieta.eus.

Epe horretan, espedientea idazkaritza-bulegoetan egongo da ikusgai, jendaurreko ordutegian: 08: 00etatik 14: 00etara.

Durante dicho plazo el expediente estará de manifiesto en las Oficinas de Secretaría, en horario de atención al público de 8:00 a 14:00 horas.

**Hirugarrena.-** Erabaki honen berri ematea idazkaritzako, kontu-hartzailetzako eta hirigintzako udal-sailei.

**Tercero.-** Dar traslado de este acuerdo a los departamentos municipales de Secretaría, Intervención y Urbanismo.

**3.- Obra handiko lizentzia Enbutegi Erdikoa baserrian egitura sendotzeko. (2021HOMA0003)**

**3.- Licencia de obra mayor para la consolidación de estructura en el caserío Enbutegi Erdikoa. ( 2021HOMA0003)**

Ikusita HAPOn eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritako baldintzak betetzen direla.

Visto que se da cumplimiento a los condicionantes establecidos en el PGOU, y en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

Ikusirik Lurraldeko Batzorde Informatzaileak 2021eko ekainaren 14an egindako irizpena.

Visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Territorio de 14 de junio de 2021.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta, aho batez, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau

En virtud de la tramitación legal establecida, por unanimidad, la Junta de Gobierno Local ha adoptado el siguiente

**ERABAKI DU:**

**ACUERDO:**

**Lehenengoa:**

Obra handiko lizentzia ematea Enbutegi Erdikoa baserrian egitura sendotzeko, 35.034,49 euroko aurrekontuarekin.

**Primero:**

Conceder licencia de obra mayor para la consolidación de estructura en el caserío Enbutegi Erdikoa por un presupuesto de 35.034,49 euros.

**Bigarrena:**

BALDINTZA BEREZIAK

- Arotzeriek ezingo dute PVC zuriak izan, zurez edo egur-imitazioz baizik.
- Pertsianak ezin izango dira biribilkatuak izan, egurrezko leihatilak baizik, edo bestela barrualdetik ilundu beharko da.
- Hobi septikoak iragazki biologikoa izango du.
  Araztu ondoren, urak lur pribatura isuri behar dira, bai hodi porotsuetatik (gutxienez 20 m-ko luzera), bai drainatze-tunelen bidez iragazteko beste sistema batzuetatik.

**Segundo:**

CONDICIONES PARTICULARES

- Las carpinterías no podrán de PVC en color blanco, sino de madera o imitación madera.
- Las persianas no podrán ser enrollables, sino tipo contraventanas de madera, o realizar el oscurecimiento desde el interior.
- La fosa séptica dispondrá de filtro biológico.
  El vertido de las aguas una vez depuradas, deben verterse al propio terreno bien por tubos porosos (mínimo 20 m de longitud) o por otros sistemas de infiltración mediante túneles de drenaje.

Araztegi horiek Europako CE kalitate-zigilua izan behar dute.

Euri-urak modu independentean bideratuko dira.

- Obra gehienez ere 6 hilabetetan hasi beharko da baimenaren jakinarazpena jasotzen denetik eta urte 1 baina lehen bukatu.

Estas depuradoras deben disponer de sello de calidad europeo CE.

Las aguas pluviales se canalizarán de forma independiente.

- El plazo de inicio de la obra será como máximo de 6 meses desde la recepción de la notificación de la licencia y 1 año para su finalización.

Obrak hasi baino lehen:

- Obra zuzendaritza teknikoa izendatu beharko da.

Antes del comienzo de la obra:

- Deberá nombrar Director de Obras a Técnico competente.

Obrak bukatu eta gero:

- Obra Amaierako Ziurtagiria aurkeztuko du, obra zuzendariak sinatua eta dagokion elkargoak onetsia.
- Sortutako hondakinen kudeaketa egokia ziurtatzeko, hondakinak eta eraikuntza materialak sortzen dituen pertsonak amaierako txostena ekarri beharko du, 112/2012 dekretuko III. eranskinarekin bat etorriz.
Txosten hau derrigorrez aurkeztu behar izango da bermea itzultzeko.

Al finalizar las obras:

- Presentará el Certificado Fin de Obra firmado por el directo de la obra y visado por su Colegio correspondiente.
- A fin de acreditar la correcta gestión de los residuos generados, la persona productora de los residuos y materiales de construcción deberá aportar un informa final, de acuerdo al anexo III del Decreto 112/2012. Será necesario aportar este informe, para que pueda procederse a la devolución de la fianza.

**Hirugarrena:**

HONDAKINAK

- Espresuki debekatzen da obrako materialak edo zakarrak zuzenean zolan uztea, masak eta mortairuak prestatzea etab.

- Debekatuta dago obretako zakarrak baimendu gabeko zabortegietan uztea.

- 112/2012 dekretuak araututako obra izanik, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena, eraispenean sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko helburuarekin, hondakin horien kudeaketaren % 120ko bermea jarri beharko da, hau da, 441,56 euro.

**Tercero:**

RESIDUOS

- Se prohíbe expresamente depositar materiales de obra o escombros, directamente en el pavimento, así como preparar masas, morteros, etc.
- Se prohíbe depositar los escombros procedentes de las obras en vertederos no autorizados.

- Al tratarse de una obra regulada por el Decreto 112/2012, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, con el fin de garantizar la adecuada gestión de los residuos generados en la demolición se deberá imponer una fianza del 120% del coste de la gestión de dichos residuos, es decir, 441,56 euros.

**Laugarrena:**

BALDINTZA OROKORRAK

**Cuarto:**

CONDICIONES GENERALES

- Baimen honek bakar-bakarrik balio du eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioan aurrekontu eta guzti adierazitako obrak egiteko.

- Espazio publiko urbanizatuetara eta eraikinetara iristeko eta horiek erabiltzeko ahalmen urritasuna duten pertsonen irisgarritasuna bermatzeko eta bereizkeria saihesteko oinarrizko baldintzak onartzen dituen apirilaren 20ko 505/2007 Errege Dekretuak xedatutakoa bete beharko dute, baita irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/97 Legean eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan xedatutakoa ere, hiri inguruen, gune publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

**Bostgarrena:**

SEGURTASUNEKO NEURRIAK

- Obra egiterakoan oinezkoen segurtasuna kontuan hartuko da, behar izanez gero hesiak jarriz.
- Obrek iraun bitartean, indarrean dauden segurtasun neurriak hartuko dira, bertan lanean ari diren langileak eta oinezkoak babesteko. Beraz, bide publikoa beharrezko neurri osagarriekin babestuko da (oholtza aldamiozko pasabide-moduluak, hesiak, baliza zintak, sareak, biserak eta abar), oinezkoen segurtasuna eta zirkulazioa bermatzeko moduan, fatxadako hondakinak irits daitezkeen eremu osoan. Neurri hauek gutxienez 1,5 METRO BETE utzi beharko dute oinezkoak pasa daitezen.

**Seigarrena:**

ZARATAK

Lanen ordutegiari dagokionez, zaraten eta bibrazioen igorpena arautzen duen Udal ordenantzak ezartzen duena bete beharko da, ondorioz, lanak ezingo dira 22:00etatik 08:00etara eta jaiegunetan egun osoan zehar burutu. Etxe barruko lanetarako, neurri zuzentzaile egokiak hartuko dira zarata edo bibrazioengatik auzokoentzat sor daitezkeen eragozpenak gutxitzeko.

- La presente licencia ampara exclusivamente a las obras que se presupuestan y relacionan en la documentación presentada y correspondiente a la solicitud realizada.

- Deberán cumplir lo establecido en el R.D. 505/2007 de 20 de abril por el que se aprueban las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados y edificaciones, así como lo establecido en la Ley 20/97 de 4 de Diciembre para la promoción de la accesibilidad y lo establecido en el Decreto 68/2000 de 11 de abril por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

**Quinto:**

MEDIDAS DE SEGURIDAD

- Al efectuar la obra, se tendrá en cuenta la seguridad de las posibles viandantes, colocando vallas si fuera necesario.
- Se adoptará, mientras duren las obras, las vigentes medidas de seguridad para la protección de operarios que en ellas intervienen, así como de los viandantes. En éste sentido se protegerá la vía pública mediante los medios auxiliares que fueran precisos (módulos de paso de andamios con entablados, vallados, cintas balizadoras, redes, viseras, etc.) que garanticen la seguridad del tránsito peatonal y rodado en todo el tramo susceptible de recibir desprendimientos desde la fachada. Estos deberán permitir un paso de peatones de una anchura mínima de 1,5 METROS.

**Sexto:**

RUIDOS

En cuanto al horario de los trabajos, se deberá cumplir lo establecido en la Ordenanza Municipal de Emisión de Ruidos y Vibraciones, por lo que los trabajos no podrán ejecutarse entre las 22 y las 8 horas, y los días festivos en su totalidad. Para los trabajos en el interior de las viviendas se adoptarán las medidas correctoras oportunas para minimizar las molestias que por ruido y/o vibraciones se puedan generar en el vecindario.

**Zazpigarrena:**

Baldin eta obra egiteko beharrezkoa bada laguntza bitartekoak jartzea, al nola, aldamioak, edukiontziak edo horrelakoak, eta horiek bide publikora begira edo bide publikoa okupatuz jartzen badira Ibi Publikoaren Okupaziorako Baimena eskatu beharko du eta udaltzainekin harremanetan jarri beharko da honen kokapena zehazteko. Kasu horretan hondakinak tolba bidez bideratu beharko dira.

**Septimo:**

Si para la ejecución de la obra fuera preciso el empleo de medios auxiliares como andamios, contenedor o cualquier otro elemento auxiliar y los mismos están orientados u ocupando la vía pública, deberá solicitar Licencia de Ocupación de Vía Pública y ponerse en contacto con la Policía Municipal para concretar la ubicación. En ese caso los residuos tendría que sacarlos a través de un tubo.

**Zortzigarrena:**

Lizentzia, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango da eta beharrezkoak diren gainontzeko lizentzia eta baimena administratiboak kontuan izan beharko dira.

**Octavo:**

La licencia se concede a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros y de las demás licencias y autorizaciones administrativas que sean procedentes.

**Bederatzigarrena:**

Baimen honek obraren lekuan egon beharko du, honek irauten duen bitartean, eta Udaltzaingoaren edo Udal Zerbitzu Teknikoen eskura jarriko da, hauek eskatzen dutenean.

**Noveno:**

Indicar que esta autorización deberá estar en el lugar de emplazamiento de la obra, durante el transcurso de la misma, a disposición de la Policía Local o de los Servicios Técnicos Municipales cuando éstos la requieran.

**Hamargarrena:**

Kontu-hartzailetza zerbitzuak dagokion zerga likida dezala, hala badagokio.

**Décimo:**

Que por los servicios de Intervención, en su caso, se proceda a la liquidación del tributo que corresponda.

**4.-Euskal Fondoko urteko Plan operatiboan proiektu baten aldaketarako proposamena. (2021GHIT0001)**

**4.- Propuesta de cambio de un proyecto en el plan operativo anual de Euskal Fondoa. (2021GHIT0001)**

**Aurrekariak**

Tokiko Gobernu Batzarrean, 2021eko apirilaren 30ean egindako ezohiko bilkuran, honako hau erabaki da:

Euskal Fondoako Hitzarmenari dagokionez

Lehena.-Euskal Fondoarekin sinatu beharreko hitzarmen-proposamena onartzea (eranskina). Hitzarmen honen indarraldia 2024ko abenduaren 31a bitartekoa izango da.

Bigarrena.-Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

**Antecedentes**

En la Junta de Gobierno Local en sesión extraordinaria celebrada en fecha 30 de abril de 2021 se acuerda:

En lo relativo al Convenio de Euskal Fondoa

Primero.-Aprobar la propuesta de convenio a suscribir con Euskal Fondoa (anexo). El convenio se mantendrá vigente hasta el 31 de diciembre de 2024.

Segundo.-Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho convenio.

Hirugarrena.-18.100 euroko dirulaguntza ematea 1 0600.481.230.20.07 (920) aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.

Tercero.-Aprobar la concesión de una subvención de 18.100 euros con cargo a la partida presupuestaria 1 0600.481.230.20.07 (920), indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.

Laugarrena.-Euskal Fondoari erabakia jakinaraztea eta gizartekintza eta kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Cuarto.-Notificar este acuerdo a Euskal Fondoa y trasladar el mismo a los departamentos de acción social e intervención a los efectos oportunos.

Urteko Plan Operatiboari dagokionez

En lo relativo al Plan Operativo Anual

Lehena.- Urnietako Udala eta Euskal Fondoaren arteko 2021 urterako, Urteko Plan Operatiboa onartzea.

Primero.- Aprobar el Plan Operativo Anual 2021 entre el Ayuntamiento de Urnieta y Euskal Fondoa.

Bigarrena.-P324k, p323k eta p289k proiektuan eta bazkide kuota finantzitzea.

Segundo.-Financiar los proyectos P324k, p323k eta p289k y la cuota social para pertenecer a Euskal Fondoa.

p324k Saharako errefuxiatuen kanpalekuetako garraio-azpiegiturari laguntzea: Smarako gasolindegia handitzea, suntsikorrak eta ordezkoak. Aljeria

p324k Apoyo a la infraestructura de transporte en los campamentos de población refugiada saharaui: Rehabilitación y ampliación de la gasolinera en Smara, fungibles y recambios. Argelia

p323k Habanako erdigune historikoan Historialarien Bulegoak adineko pertsonen arretarako duen programa sendotzea. Kuba

p323k Fortalecimiento de los programas de atención a las personas mayores que desarrolla la Oficina del Historiador en el centro Histórico de la Habana.

p289k Artikulazio instituzionala eta sare sozialak, indarkeriarik gabe bizitzeko. Alta Verapaz. II. fasea (3). Guatemala

p289k Articulación institucional y redes sociales para vidas libres de violencias Alta Verapaz. Fase 2/3. Guatemala

Behin erabakia Euskal Fondoari helarazita, iada 2020-2021 Kudeaketa Txostenean jasotako aldaketaren berri eman digute, lehen bi proiektuen zenbaketan eta enuntziatuan, aldaketak daudela eta hirugarren proiekturako beste erakunde batzuekin hitzartutako estaldura ekonomiko osoa dutela.

Una vez trasladada la decisión a Euskal Fondoa nos comunican sobre la modificación ya recogida el Informe de Gestión 2020-2021,en la numeración y enunciado de los dos primeros proyectos planteados y sobre la cobertura económica total ya pactada con otras entidades para el tercer proyecto

Ikusirik Herritargoko Batzorde Informatzaileak 2021eko ekainaren 16an egindako irizpena.

Visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Ciudadanía de 16 de junio de 2021.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta, aho batez, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau

En virtud de la tramitación legal establecida, por unanimidad, la Junta de Gobierno Local ha adoptado el siguiente

**ERABAKI DU:**

**ACUERDO:**

1. Aurreko urteetan lagundutako proiektuak finantzatzen jarraitzeko konpromisoari eusteko, Urnietako Udalaren eta Euskal Fondoaren arteko 2021eko Urteko Plan Operatiboa onartzea, honako proiektu hauek finantzatuz:

1.- Con el objeto de mantener el compromiso de continuar la financiación de los proyectos apoyados en anteriores años , aprobar el Plan Operativo Anual 2021 entre el Ayuntamiento de Urnieta y Euskal Fondoa con la financiación de los siguientes proyectos

P336k-21 Heldu nagusientzako arreta-programak sendotzea Habanako hirigune historikoan, Covid garaian.

P336k-21.Consolidar los programas de atención a la población adulta mayor en el centro histórico de histórico de la Habana en tiempos de Covid.

P337k-21 Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako garraio-azpiegiturari laguntza: prestakuntza, suntsikorrak, ordezko piezak eta ekipo elektrogenoak eta sistema fotovoltaikoak konpontzeko eta mantentzeko unitate mugikorra.

P337k-21 Apoyo a la infraestructura de transporte en los campamentos de población refugiada saharaui- Formación, fungibles, recambios y unidad móvil de reparación y mantenimiento de grupos electrógenos y sistemas fotovoltaicos.

P321K-21 El Salvadorreko udalerrietan genero ikuspegiarekin tokiko gobernagarritasuna eta gobernantza indartzea. II fasea

P321K-21 Fortaleciendo la gobernabilidad y gobernanza local con perspectiva de género en municipios de El Salvador. Fase II

2.- Euskal Fondoari erabakia jakinaraztea eta Gizartekintza eta Kontu-hartzailetza Sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

2.- Notificar este acuerdo a Euskal Fondoa y trasladar el mismo a los departamentos de Acción Social e Intervención a los efectos oportunos.

**5.- Adinekoen Pisu Babestuko plaza eskaerarako proposamena. (2021GORO0017)**

**5.- Propuesta de solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal. (2021GORO0017)**

Ikusirik 2021GORO0017 espediente zenbakiaren gizarte langilearen txostena eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoaren 172 eta 175 artikuluetan xedatutakoaren arabera, ondorengo

Visto el informe de la Trabajador social en relación al nº de expediente 2021GORO0017**,** y de conformidad con lo dispuesto en los artículos 172 y 175 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, se emite el siguiente

Ondorengoetan oinarrituta:

Con base en los siguientes:

**1. GERTAKARIAK**

**1.HECHOS**

Lasarteko Udalak, (Gizartekintza Sailak) eskatu du:

El Ayuntamiento de Lasarte (Departamento de Acción Social) ha solicitado:

| **Espediente zenbakia /** Nº de expediente | **Data/** Fecha | **Eskaeraren kontzeptua/** Concepto Solicitud |
|---|---|---|
| 2021GORO0017 | 2021/05/05 | **Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera bere herritar batentzako.** Solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal para una persona ciudadana suya. |

2. Gizarte langileak aipatutako espedienteari buruzko txostena egin du jarraian adierazitako datan eta adierazitako edukiarekin:

2. La trabajadora social ha emitido informe relativo a dicho expediente en la fecha y con el contenido indicado a continuación:

| **Espediente zenbakia /** Nº de expediente | **Data/** Fecha | **Kontzeptua/**Concepto |
|---|---|---|
| 2021GORO0017 | 2021/05/19 | **Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera bere herritar batentzako.** Solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal para una persona ciudadana suya. |

**2. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENA.-** Udal tutoritzapeko etxebizitzako araudia ikusi ondoren.

**BIGARRENA.-**Gizarte langilearen txostena ikusi ondoren:

Ikusirik Herritargoko Batzorde Informatzaileak 2021eko ekainaren 16an egindako irizpena.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta, aho batez, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau

**ERABAKI DU:**

**LEHENA.-** Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera onartzea behin behineko izaerarekin adierazten diren baldintzepean:

**2. FUNDAMENTOS DERECHO**

**PRIMERO.-** Visto el reglamento de la vivienda tutelada municipal.

**SEGUNDO.-** Visto el informe de la trabajadora social:

Visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Ciudadanía de 16 de junio de 2021.

En virtud de la tramitación legal establecida, por unanimidad, la Junta de Gobierno Local ha adoptado el siguiente

**ACUERDO:**

**PRIMERO.-** Aprobar la siguiente solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal con carácter provisional con las condiciones que se indican:

- Interesatuak errolda jatorrizko herrian mantenduko du.
- Lasarteko Udalak ezarritako tarifaren kostu osoa ordainduko duenaren konpromezua aurkeztuko du.
- Interesatuaren jarraipena modu partekatuan burutuko da bi udaletako Gizarte zerbitzuetako langileen artean.

- La persona interesada mantendrá el censo en su localidad de origen.
- El Ayuntamiento de Lasarte presentará el compromiso de abonar el coste total de la tarifa establecida.
- El seguimiento de la persona interesada se llevará a cabo de forma compartida entre el personal de los servicios sociales de ambos ayuntamientos.

**BIGARRENA.-** Kontratua sinatu.

**SEGUNDO.-** Formalizar el contrato.

**HIRUGARRENA.-** Lasarteko Udalari erabaki honen berri ematea eta Gizartekintza eta Kontu-hartzailetza sailetara igortzea, dagozkion eraginetarako

**TERCERO.-** Notificar el presente acuerdo al Ayuntamiento de Lasarte y trasladarlos a los departamentos de Acción Social e Intervención, para los efectos oportunos.

**6.- Sustapeneko diru laguntza ebazteko proposamena III eranskina: eliteko kirolariak. (2021SOKO0003)**

De Miguel andreak dio ez dutenez balorazio irizpideetan parte hartu, aldeko bozka emango dute baina hurrengo urtean gaia eta irizpideei buelta bat ematea proposatzen dute genero irizpideen aldetik.

Alkate jaunak erantzun dio erabat ados dagoela horrekin eta egingo dutela.

Urnietan, 2020ko maiatzaren 19an, Lekaion egindako bileran, 2021 ekitaldirako Urnietako udalerrian kultura, euskara, hezkuntza, kirol, haurreria, Gazteria eta aisialdiko jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak arautzen dituen arautegiaren (GAO 2021ko apirilaren 8koa) III. eranskineko 5. atalean aurreikusitako kide anitzeko organoa elkartu da ondorengo osaerarekin: Alkatea eta Kiroletako zinegotzia (Jorge Segurado), kontu-hartzailea (Aitziber Zurutuza), Udal Idazkaria (Xabier De La Mota) Sustapen Arloko Koordinatzailea (Josune Mayor) eta Kiroletako Teknikaria (Alex Astigarraga). Idazkari lanak Alex Astigarragak egin ditu eta lehendakariarenak Jorge Seguradok.

Saioari hasiera lehendakariak eman dio 10:00etan eta saioaren helburu diren gaiak lantzeari ekin zaio, ondorengo gai-zerrendarekin:

**6.- Propuesta para la resolución de la subvención de promoción (Anexo III): deportistas de élite. (2021SOKO0003)**

La Sra. De Miguel dice que dado que no han podido particiar en los criterios de valoración, votarán a favor pero proponen para el año que viene darle una vuelta a dichos criterios desde el punto de vista de la perspectiva de genero.

El Sr. Alcalde contesta que está totalmente de acuerdo con dicha propuesta y que lo harán.

